

HERNANI / Udal informatika zentroa liburutegira pasa eta ikasgela bat ireki dute

Liburutegian zortzi ordenadore gehiago izango dira kontsultarako. Ordenadoreetan ibiltzeko bazkide egitea eta kontraseina bat izatea beharrezkoak dira.

BITERI kultur etxeko udal liburutegian hainbat aldaketa egin dituzte bertako arduradunek. Kultur etxean zegoen udal informatika zentroa liburutegian integratu nahi izan dute aldaketa horiekin eta zentroa zegoen lekuan ikasgela bat jarri dute.

Zortzi ordenadore gehiago kontsultarako

Badira urte batzuk udal informatika zentroa eta liburutegia batzeko prozesua hasi zela eta honakoa izango da azkeneko pausoa. Liburutegiko gelak kontsultarako bakarrik izango dira hemendik aurrera eta bertan zortzi ordenadore gehiago jarriko dituzte. Guztira 15 ordenadore izango dira, beraz, liburutegian, horietatik 10 bigarren pisuan eta beste bost lehenengoan. Ordenadore horietan ibiltzeko liburutegiko bazkide egin eta kontraseina bat izatea beharrezkoak dira eta gehienez ere ordubetez ibili ahal izango da, ordua pasa eta gero ordenadorea automatikoki itzaliko baita. Ordenadoreak interneten kontsultak egiteko eta Open Office programetan lanak egiteko bakarrik erabili ahal izango dira, eta ezin izango da beraien bidez chateatu ezta jolastu ere. Liburutegiko arduradunek gai baten inguruko informazioa eman dezakete, baina ez dute informatikako asistentziarik eskainiko.

Ikasgela berria beheko pisuan

Udal informatika zentroa zegoen lekuan, beheko pisuan, ikasgela berri bat ireki dute. Bertan mahaiak eta aulkiak izango dira eta hainbat hiztegi jarri dituzte apaletan, kontsulta orokorrerako. Aldaketarekin, liburutegiko gelen kontsultarako izaera berreskuratu nahi izan dute eta bertan zegoen saturazioarekin amaitu, orain arte ikasteko ere erabili baitira gela horiek. Hemendik aurrera, ikastera joaten direnek, beheko pisuko ikasgelara jo beharko dute. Izan ere, ikasgela berriak ordutegi berezia izango du eta irekita egongo da goizean 09:00etatik 13:00etara eta arratsaldean 16:00etatik 21:00etara. Gainera, azterketa garaian goizeko 09:00etatik iluntzeko 21:00etara irekitzeko aukera ere ikusi dute liburutegiko arduradunek. Ikasgela honetara 16 urtetik gorakoak sartu ahal izango dira.

34.333 liburu, CD eta bideo eskura

Hernaniko Udal liburutegiak 6.000 bazkide pasatxo ditu gaur egun eta bertan 34.333 aleko fondoa dago herritarren eskura, liburu, CD eta bideo artean. Bazkide bakoitzak hiru liburu hartu ditzake maileguan 15 eguneko epearekin eta beste hiru ikusentzunezko, baina kasu honetan 8 eguneko epea izango du. 2004ko irailean txartelak aldatzen hasi ziren Euskadiko liburutegi sarean sartzeko eta horien bidez Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako gainerako liburutegietan ere hartu ditzake liburuak bertako bazkide denak, baita internet bidez ere. Bazkide egin nahi duenak liburutegira jo eta inprimakia bete behar du. Inprimakia bete ezkerotik izango du liburuak maileguan hartzeko eskubidea bazkide berriak. Bazkide egitea dohainekoa da baina txartela galdu ezker 3 euroko isuna ordaindu behar da txartel berria egiteko.